

EUSKARA

2017ko azaroa

GIPUZKOAKO NERABE EUSKALDUNAK: IKUS-ENTZUNEZKO EDUKIEN KONTSUMOA ETA SORKUNTZA

EZTABAIDA TALDEAK

Ainhoa Fernández de Arroyabe Olaortua _ EHUko Ikus-entzunezko Komunikazio eta Publizitate Saileko irakaslea.

Iñaki Lazkano Arrillaga _ EHUko Kazetaritza II Saileko irakaslea.

Leyre Eguskiza Sesumaga _ EHUko Ikus-entzunezko Komunikazio eta Publizitate Saileko ikertaria.

Iñigo Larrauri Garate _ EHUko Artearen Historia eta Musika Saileko irakaslea.

Santos Zunzunegui Díez _ EHUko Ikus-entzunezko Komunikazio eta Publizitate Saileko irakaslea.

Imanol Zumalde Arregi _ EHUko Ikus-entzunezko Komunikazio eta Publizitate Saileko irakaslea.

EGILE GUZTIAK IGM/MAC IKERKETA TALDEKO KIDE DIRA



mac

Ikus-entzunezko Garaikideen Mutazioak
Mutaciones del Audiovisual Contemporáneo



ETORKIZUNA ERAIKIZ
EL **FUTURO** DE GIPUZKOA





Aurkibide orokorra

EZTABAIDA TALDEAK

225

1. DEBAGOIENA. DBH 1eko ikasleak	225
2. GOIERRI. DBH 2ko ikasleak	229
3. DONOSTIALDEA. DBH 3ko ikasleak.....	233
4. OARSO BEHE-BIDASOA. DBH 4ko ikasleak.....	236

Eztabaida taldeak

1. DEBAGOIENA. DBH 1eko ikasleak

1.1 JASOTAKO IDEIA OROKORRAK

Ikasleen artean telebistak oraindik pisu gehiago du internet edo online saioek baino.

Internet gehienbat Youtube eta telesailak ikusteko erabiltzen dute.

- Youtuberrak jarraitzeko eta musika kontsumitzeko erabiltzen dute Youtube. Gaztelaniaz jarraitzen dituzte youtuberrak (euskaraz ez omen daude) eta musika berriz, ingelesez kontsumitzen dute askotan, gustatu egiten zaie hizkuntza horretan eskaintzen den musika.
- Telesailak normalean gaztelaniaz ikusten dituzte, zenbaitek jatorrizko hizkuntzan (japoniera aipatzen da), edonola ere gaztelaniazko azpittuluekin.
- Hizkuntzei dagokienean, gaztelaniaren erabilera nabarmentzen da, eta bigarren mailan, euskara. Ingelesak presentzia gutxi du talde honetan. Euskara gutxi erabiltzearen atzean dagoen arrazoi nagusia da ez dagoela hainbeste ikus-entzunezko material eskuragarri euskaraz. Normal edo logikotzat jotzen dute materialak sortzerakoan gaztelaniaz egitea, ohartzen baitira askoz hedapen handiagoa duen hizkuntza dela, publiko zabal batera irits daitezkeela hala. Kasu honetan, Donostialdeko ikastetxearekin alderatuz gero, ingelesak presentzia askoz txikiagoa du (adinak ere zerikusia izan dezake honetan).
- Euskaraz material gehiago eskainiko balira, gehiago kontsumituko lituzkete ikus-entzunezko edukiak euskaraz? Orokorrean, bai. Euskarazko materialen gabezia nabarmena dagoela azpimarratzen dute, eta kalitate eta erakargarritasun bereko gauzak euskaraz eskainiz gero, kontsumituko lituzkete (taldea osatzen duten zortzi pertsonen artean, batek gaztelaniarekiko joera nabarmena du, bigarren batek ere apur bat. Gainontzekoek euskara erabiltzeko joera dute, bat pakistandarra da eta horrek ere bere hizkuntzarekin batera -urdua- euskara hobesten du).

1.2 EDUKI EZBERDINEN KONTSUMO ZEHATZA

FILMAK ETA ZINEMA

MOTA tristeak (drama), fikzioa, akzioa, komedia, beldurra.

HIZKUNTZA • Nagusiki, gaztelania.

- Euskaraz gutxitan. Arrazoiak:
 - Euskarazko materialen gabezia.
 - Batzuetan, itzulpen eskasak.
 - Publizitate gutxi egiten zaie euskarazko filmi. Publizitate gehiago eta erakargarria egitea beharrezko ikusten dute.
 - Euskaraz gehiago baleude, ikusiko lituzkete?
 - Gaiak erakargarriak badira eta aktore onak badaude.
 - Gaztelaniazko eduki berberak eskainiko balira, euskaraz ikusiko lituzkete.
 - Euskaraz ikusi dituztenak: *Go!azen*, *Marte*, *Doraemon* (pelikula), *Shin-Chan* (pelikula).

TELESAILAK

- GAILUAK** gehienbat telebista bidez, zenbaitetan internet bidez (ordenagailua, tableta).
- HIZKUNTZA** gehienbat gaztelaniaz, zenbaitetan euskaraz.
- Gaztelaniaz ikusten dituztenak: *The Next Step*, *Hawaii 5.0*, *CSI Los Angeles*, *Castle*, *Fairy Tail*.
 - Euskaraz: *One Piece*, *Go!azen*, *Dragoi-bola*.
 - Bi ikaslek diotenez, japonieraz ikusten dituzte *Fairy Tail*, *One Piece* eta *Dragoi-bola*, baina gaztelaniazko azpitoluekin (gaztelaniarekiko joera erakusten duten bi ikasleak dira). Aipatzen dutenez, azpitoluak irakurriz ikasi ere egiten dute, esaterako zenbait hitzek azentu-marka dutela.
 - Euskaraz gutxiago ikusten dituzte, aukera gutxiago dagoelako, telesail gutxiago eskaintzen direlako hizkuntza horretan. Baina aukera gehiago balego, euskara hobetsiko lukete orokorrean.

LEHIAKETAK

- GAILUAK** telebista bidez ikusten dituzte.
- SAIOAK** *Got Talent*, *Ahora caigo*, *MasterChef*, *La voz*, *La ruleta de la suerte*, *Wipeout*, *Pasapalabra*, *Gu ta gutarrak (Mujeres y hombres y viceversa orokorrean ez dute ikusten)*, *El conquistador del fin del mundo*. (Ikus daitekeenez, hein handi batean, lehiaketa espainiarrak dira).
- HIZKUNTZA** nagusiki gaztelaniaz, euskaraz gutxi. Euskaraz ez ikustearen arrazoa da euskaraz lehiaketa gutxi dagoela. Euskaraz gaztelaniazkoen kopuru berbera eskainiko balitz, euskaraz ikusiko lituzkete.

KIROL EMANALDIAK

- KIROL MOTAK** futbola, saskibaloia, pilota, txirrindularitza, atletismoa, eskubaloia...
- GAILUAK** batik bat, telebistaz eta gaztelaniazko kanaletan ikusten dituztela diote.
- HIZKUNTZAK** orokorrean gaztelaniaz ikusten dituzte, partidak hizkuntza horretan eskaintzen dituztelako. Euskaraz normalean ez, soilik saskibaloia partida batzuen kasuan. Euskaraz gauza gehiago eskaini beharko lirakeela aipatzen da.

GAURKOTASUNA

- MOTAK** albisteak eta kirola, prentsa arrosarik ez.
- GAILUAK** telebista bidez eta, gehienbat, gaztelaniazko kanaletan.
- HIZKUNTZA** gehienbat gaztelania, aukera gehiago dagoelako gaztelaniaz.

MUSIKA ETA BIDEOKLIPAK

- MUSIKA MOTA** popa, reaggetoia, heavy metala, punka, rocka, elektronikoa, rapa, parodiak (jatorrizko bertsioen aldaerak). Euskal musika gutxiago entzuten dute, hala ere zenbait euskal talde aipatzen dituzte: *Gatibu*, *Vendetta*, *Huntza*, *Skakeitan*...
- HIZKUNTZARI** dagokionez, ezberdintasunak nabarmentzen dira taldean. Hiru ikaslek gehienbat gaztelaniaz eta euskaraz kontsumitzen dutela diote, bi ikaslek ingelesez eta gaztelaniaz batik bat, ikasle batek ingelesez gehienbat, beste batek gaztelaniaz hein handi batean, eta azken batek (pakistandarra), ingelesez eta euskaraz.
- GAILUAK** internet bidez gehienbat, Youtube erabilia.

BIDEOJOKOAK

- MOTAK** mutil gehienek bideojoko bortitz edo biolentoak kontsumitzen dituzte. Neskek, berriz, beste mota batekoak dituzte gogoko.
- JOKOAK** *Call of Duty*, *GTA 5*, *The Last of Us*, *Uncharted*, *Modern Strike Online* (hauek guztiak biolentoak), *Slither.io* (sugetxo batena, neskek kontsumitzen dute gehienbat), *Fifa 17* (futbola), *Clash Royale* (kartak).
- GAILUAK** bideokontsola, telefono mugikorrean deskargatuta, ordenagailua, telebista.
- HIZKUNTZAK** nagusiki gaztelaniaz, euskaraz ez dute kontsumitzen ez dagoelako, baina eskainiko balitz, erabiliko lukete.
- AISIALDIA EDO IKASKUNTZA** gehienbat aisialdirako erabiltzen dute, nahiz eta zeharka zerbait ikas dezaketen.

YOUTUBER ZEIN BIDEO-TUTORIALAK

- YOUTUBERRAK** youtuber bakarra dago taldean.
- HIZKUNTZA** nagusiki gaztelaniaz kontsumitzen dituzte halako materialak, euskaraz ez omen dagoelako. Euskaraz kalitate bereko bideo-tutorialak sortuko balira, oro har, nahiago lukete euskaraz kontsumitu.
- AISIALDIA EDO IKASKUNTZA** youtuberrak aisialdiarekin lotzen dituzte, bideo-tutorialak hainbatetan ikaskuntzarekin, bideo horietan zenbait gauza nola egin azaltzen dutelako.

1.3 EUSKARAZKO TELEBISTA KATEAK (ETB, HAMAIKA, GOIENA)

ETB kontsumitzen dute, batik bat. Hamaika Telebista ezagutu ere ez dute egiten. Goiena Telebista ere ikusten dute, dena den, ETB baino gutxiago, eskaintza ere murriztagoa duelako.

- ETBn ikusten dituzten saioak: *Go!azen*, *Doraemon*, *Shin-Chan*, *One Piece*, *Dragoi-bola*, saskibaloi partidak, *Gu ta gutarrak*.
- Goiena Telebistan ikusten dituzten saioak: *Kantari* eta *Zorion agurrak*.

Hizkuntza: bai ETB eta bai Goiena Telebista euskaraz kontsumitzen dituztela diote. ETB euskararekin lotzen dute erabat, gaztelaniaz ikusten ote duten galdetu zaienean, hainbatek harridura erakutsi du, ez dira ohartzen ETB gaztelaniaz ere badela.

1.4 IKUS-ENTZUNEZKO EDUKIEN SORKUNTZA ETA HEDAPENA

Taldekiddeen artean bat youtuberra da, beste batek duela urtebete inguru bost edo sei bideo egin eta sareratu zituen baina gaur egun ez ditu egiten. Gainontzekoek egin ez, baina jarraitu/kontsumitu bai egiten dituztela. Erabiltzen duten plataforma Youtube da.

SORKUNTZA

- MOTAK**
- Batek bideojokoei lotutako kontuak sortzen zituen youtuber zenean.
 - Beste batzuek (nagusiki, neskek) musikari loturiko materialak sortzen dituzte, *Musical.ly* izeneko aplikazio baten bidez.
 - Beste zenbaitek bideo "normalak" egiten dituztela aipatzen dute, telefono mugikorraren kamera erabilia.
- ASIALDIA EDO IKASKUNTZA** aisialdia, entretenitzeko sortzen dute, ez ikasteko.

HIZKUNTZA nagusiki, gaztelania. Youtuberren kasuan, hedapenaren arrazoia aipatzen da: publiko zabal batera iristeko aukera. Bestalde, musikari lotutako materialak egiterakoan ingelesaren erabilera aipatzen da, aplikazioek nazioarteko kantuekin jarduteko aukera ematen dutelako. Horrelakoak euskaraz egiteko aukera emango balitzaie, erabiliko lukete.

IRUZKINAK

Ez dute gehiegi iruzkintzeko ohiturarik, eta askotan emotikono edo hitz solteen bidez egiten dute. Beraz, erabiltzen duten hizkuntza zehaztea zail egiten zaie, euskara eta gaztelania, edozein izan daiteke.

HEDAPENA

Youtube erabiltzen dute. Facebook, Instagram edota WhatsApp bezalako sare sozialak ez (gutxienik, materialen sorkuntza eta hedapenerako).

1.5 BALIZKO KONTSUMOEN INGURUKO IRITZIA

Euskarazko tutorialen kanala, youtuberrak edota bideojokoak euskaraz eskainiko balira, aldekoa da jarrera nagusia. Hau da, kontsumituko lituzkete material horiek.

Gaztezulo aldizkaria ez dute ezagutzen. Nolanahi ere, berri interesgarriak jasoz gero, kontsumituko luketela diote.

1.6 DINAMIZATZAILEAREN IRITZIA

Euskara euren egunerokotasunean erabiltzen duten hizkuntza da (bat do bi kenduta). Hori dela eta, euskarazko ikus-entzunezko materialen aurrean jarrera baikorra erakusten dute, eta gainera, beharrezko ikusten dute material gehiago eskaintzea euskaraz. Beraz, kasu honetan bai gerta daitezkeela eraginkor *Game Erauntsia*, *Gaztezulo* eta bestelako euskarazko materialak.

2. GOIERRI. DBH 2ko ikasleak

2.1. JASOTAKO IDEIA OROKORRAK

- Debagoieneko ikastetxean gertatzen den bezala, internet edo *online* saioek baino pisu gehiago du telebistak oraindik (hau adinagatik izango da seguruenik).
- Internet gehienbat Youtube ikusteko erabiltzen dute. Telefono mugikorra edota ordenagailua erabiltzen dituzte kirola, musika eta jokoekin loturiko materiala kontsumitzeko.
- Hizkuntzari dagokionez, gaztelania da nagusi, ondoren ingelesa legoke (hau, batik bat, musikari lotua nabarmentzen da). Hizkuntza horietan kontsumitzearen arrazoa gainontzeko ikastetxeetan agertzen den berbera da: interneten jarraitzaile gehiago izateko erabilgarriagoak dira bi hizkuntza horiek hedapen zabalagoa dutelako.
- Telebistan gustuko dituzten hainbat saio aipatzen dituzte: *Gu ta gutarrak*, *El conquistador del fin del mundo*, *Supervivientes*, komediak, kirol albisteak eta partidak.
- Hizkuntzari dagokionez, telebistaren kasuan gehiengoak euskaraz kontsumitzen duela aipatzen du (bost pertsonak), hainbatek gaztelaniaz diote (bik), eta azken batek, bi hizkuntzetan maila berean kontsumitzen duela dio. Euskara gehiago ez kontsumitzearen atzean bi arrazoi nagusi aipatzen dituzte:
 - Batetik, beste taldeetan ere agertu den ideia: euskaraz gaztelaniaz baino aukera gutxiago dago.
 - Familiaren eragina. Hau da, familia erdalduna bada, haurrak ikastetxe euskaldun batean izanik ere, etxeko hizkuntza gaztelania da eta ikus-entzunezkoen erabilera hizkuntza horretan egiten da (ikasle baten kasua da hori, dena den, bakarrik denean ere gaztelaniaz kontsumitzen duela dio).
- Euskaraz material gehiago eskainiko balitz, gehiago kontsumituko lituzkete ikus-entzunezko edukiak euskaraz? Zalantzarik gabe, bai. Euskarazko materialen gabezia nabarmena dagoela azpimarratzen dute, eta kalitate eta erakargarritasun bereko gauzak euskaraz eskainiz gero, kontsumituko lituzkete (familia erdalduneko kidea nahiko isilik mantendu da, agian berak ez luke euskaraz kontsumituko aukera emanda ere).

2.2. EDUKI EZBERDINEN KONTSUMO ZEHATZA

FILMAK ETA ZINEMA

GAILUAK nagusiki, telebistan ikusten dituzte filmak

MOTAK komedia; poliziakoak, abentura, akzioa; beldurra.

HIZKUNTZA • Nagusiki, gaztelania.

• Euskaraz gutxitan. Arrazoiak:

- Euskarazko materialen gabezia dago eta aukera gehiago eskaintzeko beharra ikusten dute.
- Euskaraz eskaintzen dena ez da helduentzako, umeentzat baizik. *Doraemon* moduko marrazki bizidunak, kasu. Ez da interesgarria.

TELESAILAK

GAILUAK telebista bidez ikusten dituzte.

TELESAILAK *Hawaii 5.0, La que se avecina, Aída, Gym Tony, Los Simpson, CSI, Go!azen, Irrikitown* eta *Herri txiki, infernu handi* saioa.

(Ikus daitekeenez, telesail gehienak espainiarrak edo nazioartekoak dira, eta gaztelaniaz kontsumitzen dituzte. Hori beraiei aipatu eta euskarazko edukietan sakontzean, saio gehiago gogoratu dituzte. Hasiera batetan soilik *Go!azen*, ondoren beste biak –*Herri txiki, infernu handi* telesaila ez den arren, nabarmendu dute–).

HIZKUNTZA gehienbat gaztelaniaz, euskaraz gutxi daudelako. Gehiago eskainiko balira, kontsumituko lituzkete.

LEHIAKETAK

GAILUAK telebista bidez ikusten dituzte.

PROGRAMAK *MasterChef (Junior), El conquistador del fin del mundo, Gran Hermano, Mujeres y Hombres y viceversa, Got Talent, Pasapalabra, Ahora caigo, Saber y ganar, Gu ta Gutarrak, Burubero.*

(Ikus daitekeenez, orokorrean lehiaketa espainiarrak kontsumitzen dituzte. Antzekoak diren saioen artean, *Gran Hermano, Mujeres y Hombres y viceversa* edo *Gu ta Gutarrak* leudeke. Gehien gustatzen zaiena **Gu ta Gutarrak** dela diote).

HIZKUNTZA nagusiki gaztelania, euskaraz gutxi. Euskaraz gutxiago ikusten dituzte aukera gutxiago dagoelako, lehiaketa gutxiago eskaintzen direlako hizkuntza horretan. Baina aukera gehiago balego, euskara hobetsiko lukete orokorrean. Bestalde, euskarazko lehiaketa interesgarriak ordutegi egokietan eskaini beharko liritekeela aipatzen dute, eurentzat ordutegi hori 17:00-22:30 izango litzateke.

KIROL EMANALDIAK

GAILUAK telebista aipatzen dute batik bat, ETB eta kanal espainiarrak.

- Kanal espainiarrak: *Deportes Cuatro, Gol TV, Teledporte.*
- Bertako kanalen artean: ETB. Saskibaloia, pilota edota estropadak kontsumitzen dituzte.

KIROL MOTAK herri kirolak (aizkolaritza gustuko du batek), futbola, saskibaloia, pilota, atletismoa, eskubaloia, igeriketa, estropadak...

HIZKUNTZAK orokorrean gaztelaniaz ikusten dituzte, partidak hizkuntza horretan eskaintzen dituztelako. Euskaraz, normalean ez. Izatekotan, saskibaloia, pilota partidak, estropadak eta abar. Euskal kirolak, bereziki. Euskaraz gauza gehiago eskaini beharko liritekeela aipatzen da (esanguratsua da saskibaloia beti euskaraz ikusten dutela aipatzen dutela, talde gehienetan).

GAURKOTASUNA

GAILUAK telebista bidez eta gehienbat gaztelaniazko kanaletan.

MOTAK albisteak eta kirola gehienbat, eta prentsa arrosa apur bat ere bai.

- Prentsa arrosa: *Cazamariposas* saioa aipatzen dute (horrelako saio bat euskaraz balego, gustura ikusiko luketela aitortzen dute. Besteak beste, euskal famatuen inguruko txutxu-mutxuen berri izateko. *Gu ta gutarrak* saioan parte hartzen duen jendearen ingurukoak, kasu).
- Albisteak eta kirolak:
 - Albistegiak (euskarazkoak zein gaztelaniazkoak).
 - Eguraldia (gehlenbat euskaraz, Euskadiko eta zehazki tokiko eguraldia axola zaielako, estatu mailakoa ez zaie inporta).
 - Kirola: *Teledporte, Deportes Cuatro* eta *Gol festa* aipatzen dituzte.

HIZKUNTZA gaztelaniaz gehiago, aukera gehiago dagoelako. Nahi lukete euskaraz aukera gehiago izatea.

MUSIKA ETA BIDEOKLIPAK

GAILUAK Internet bidez gehienbat, Youtube erabiliz, eta telebistan (musikari lotutako euskal saiok nabarmentzen dira: *Kantugiro, Izarrak kalean, Bagoaz*).

MUSIKA MOTA popa, reagettoa, elektronikoa, rapa, rocka, euskal musika.

(Euskal musika zenbat kontsumitzen duten galdetzean, erdi aldean kokatuko luketela diote, badaude gehiago entzuten dituzten musikak. Hala ere, kalitate oneko musika dela aipatzen dute, reagetoiarekin gertatzen ez den bezala (letra zentzugabe eta matxistak dituztela diote). Euskal taldeen artean ondorengoak aipatzen dituzte: *Gatibu, Vendetta, Huntza, Ken 7...*

HIZKUNTZA gehienbat ingelesez kontsumitzen dutela diote, bigarrenik gaztelaniaz, eta hirugarrenik, euskaraz. Euskaraz gutxiago kontsumitzearen arrazoen artean hauek leudeke:

- Hizkuntza txikia dela, eta beraz, aukera gutxiago dago. Gehiago balego, hobe.
- Gizartearen modak jarraitzen dituztela. Adb.: reagettoa orain asko kontsumitzen den estiloa denez, eurek ere joera hori jarraitzen dute.

BIDEOJOKOAK

GAILUAK bi erabilera ezberdintzen dituzte:

- Ikusteko: Youtube erabiltzen dute.
- Jolasteko: telefono mugikorra, bideokontsola, tableta... (makina fisikoak).

MOTAK tiroetako jokoak (soilik mutiletariko batek aipatzen ditu, gainontzekoek joko biolentorik ez dutela erabiltzen diote), kirolari lotutakoak, rol jokoak, istorio bat duten jokoak, dantzatzekoak, abestekoak, zentzugabeak (zentzu gutxikoak izanik ere, erraz erakartzen dituztenak).

HIZKUNTZAK nagusiki gaztelania, bigarrenik ingelesa, eta euskaraz oso gutxi kontsumitzen dute. Horren arrazoa euskarazko joko gutxi (edo bat ere ez) egotea litzateke, aukera eman beharko litzatekeela esaten da.

YOUTUBER ZEIN BIDEO-TUTORIALAK

Youtuber bat dago taldean, gainontzekoak jarraitzaile lirateke, ez sortzaile.

HIZKUNTZA nagusiki gaztelaniaz kontsumitzen dituzte halako materialak, euskaraz ez omen dagoelako. Aipatzen dutenez, youtuberrek publiko zabal batera iritsi nahi dutenez, hedapen handiagoko hizkuntzen erabilera egiten dute (gaztelania, ingelesa). Euskaraz eskainiko balira, kontsumituko litzukete.

AISIALDIA EDO IKASKUNTZA youtuberrak aisialdiarekin lotzen dituzte, bideo-tutorialak sarri ikaskuntzarekin, bideo horietan zenbait gauza nola egin azaltzen dutelako (nahiz eta batzuetan bideoari esker ikasitakoa joko batean misio bat nola egin behar duten izan).

2.3. EUSKARAZKO TELEBISTA KATEAK (ETB, HAMAIKA, GOIENA)

Euskaraz zein telebista kontsumitzen duten galdetzean, hainbat aipatzen dituzte: ETB, Teledonosti (gaztelaniaz da) eta Goierri Telebista. Gehienbat ETB kontsumitzen dutela diote, Goierri Telebista oso noizbehinka, eurak edo euren senide edo ezagunen bat atera daitekeela dakitenean (herri ekimenean batean parte hartu izanagatik, kasu). Hamaika Telebista ez dute aipatzen.

- ETBn ikusten dituzten saioak: kirolari loturikoak (*Gol festa*, "aizkolaritza eta pilotari buruz aritzen den saio bat", estropadak...), eta saioak, lehiaketak edo reality-ak (*Gu ta gutarrak*, *El conquistador del fin del mundo*, *Burubero*, *Irrikitown*, *Herri txiki*, *infernu handi*...).

2.4. IKUS-ENTZUNEZKO EDUKIEN SORKUNTZA ETA HEDAPENA

Taldekideten artean bat youtuberra da. Beste guztiek, youtuberrak ez diren arren, badakite bideoak sortzen, nahiz eta gero ez partekatu. Erabiltzen den plataforma Youtube litzateke. Komentarioak egiten ote dituzten galdetzerakoan, Instagram aipatzen dute.

SORKUNTZA

- MOTAK**
- *Challenge*-ak
 - Gameplay
 - Tontakeriak/parodiak

ASIALDIA EDO IKASKUNTZA bietarako sortzen/kontsumitzen dutela onartzen dute. Gehienbat aisialdirako, ikastetxetik at sortu/kontsumitzen dute-eta batik bat. Dena den, ikastetxean *Sein* izeneko proiektu bat dute (gizarteko arazo ezberdinak aztertu eta erantzun edo konponbide bat bilatzeko egitasmoa, alegia), eta horren bueltan askotan ikus-entzunezko materiala, bideoak, sortzen dituzte euskaraz. Tutorialen kontsumoa ere ikastearekin lotzen dute, dena den, oso gutxi kontsumitzen dituzte, eta gaztelaniaz (latinoz), hizkuntza horretan daudelako.

HIZKUNTZA sortzailea den taldekideak gaztelaniaz sortzen du (justu familia erdalduna duen kidea da). Dena den, sormena gaztelaniaz egiten da publiko zabal batera iristeko aukera ematen duelako.

IRUZKINAK

Iruzkinu baino gehiago, "me gusta" botoiari sakatzen diote. Dena den, iruzkinak egiten dituztenean normalean euskaraz egiten dituztela esaten dute, beti ere kontuan hartuz iruzkintzen ari diren materiala zein hizkuntzatan dagoen sortua. Baina orokorrean gaztelaniaz iruzkinak egiten deserosoago daude.

HEDAPENA

Youtube erabiltzen dute, eta Instagram ere aipatzen da, nagusiki iruzkinak egiterakoan.

2.5. BALIZKO KONTSUMOEN INGURUKO IRITZIA

Euskarazko tutorialen kanala, youtuberrak euskaraz edota bideojokoak euskaraz ere eskainiko balira, jarrera guztiz aldekoa litzateke, hau da, kontsumituko lituzkete material horiek guztiak (Debagoienekoan antzera. Dena den, Goierrikoek Debagoienekoek baino are jarrera aldekoagoa erakusten dute, konbentzituago agertzen dira).

Gaztezulo aldizkaria ez dute ezagutzen, baina berri interesgarriak jasoko balitu, kontsumituko lukete.

2.6. DINAMIZATZAILEAREN IRITZIA

Euskara euren egunerokoan erabiltzen duten hizkuntza da (familia erdalduna duen kide bat kenduta). Hori dela eta, euskarazko ikus-entzunezko materialen aurrean jarrera baikorra erakusten dute, eta gainera, beharrezkotzat ikusten dute material gehiago eskaintzea euskaraz. Beraz, kasu honetan bai gerta daitezkeela (oso) eraginkor *Game Erauntsia*, *Gaztezulo* eta bestelako euskarazko materialak.

3. DONOSTIALDEA. DBH 3ko ikasleak

3.1 JASOTAKO IDEIA OROKORRAK

- Gero eta gehiago internet eta online saiok telebistari gailentzen ari zaizkio. Eduki edo saiirik gustukoena Youtube iruditzen zaie.
- Hizkuntzei dagokienean, gaztelaniaren erabilera nagusitzen da. Bigarren maila batean, ingelesa aipatzen dute, eta azkenik, euskara. Euskara gutxi erabiltzearen atzean hainbat arrazoi nabarmentzen dira:
 1. Ez dago hainbeste ikus-entzunezko material eskuragarri.
 2. Deseroso sentitzen dira euskarazko materialen aurrean, gaztelania erabiltzeko joera dutelako:
 - Arraroa egiten zaie euskarazko edukiak kontsumitzea.
 - Aspergarria ere bai zenbaiti.
 - Ulertzeko gaztelania euskara baino errazagoa egiten zaie.
 - Euskara ikastetxe esparruan erabiltzen dute, hortik kanpo gaztelaniaz dihardute. Hori dela eta, euskara derrigortasun gisa bizi dute; gaztelania berriz, gehiago lotzen dute aisiarekin, erosotasunarekin.
 3. Kontziente dira euskara hizkuntza gutxitua dela, gaztelania eta ingelesa berriz, askoz hedatuago daude, erabilgarriagoak izan ahal dira. Materialen sorkuntzari dagokionean, normalagoa iruditzen zaie gaztelaniaz (edota ingelesez) sortzea, hedapen eta ikusleria zabalagoa lor dezaketelako.
- Euskaraz material gehiago eskainiko balira, gehiago kontsumituko lituzkete ikus-entzunezko edukiak euskaraz? Batzuek zuzenean ezetz diote, beste batzuk ahalegina egiteko prest egongo lirateke, beti ere eskainitako edukia kalitate onekoa eta erakargarria bada. Edonola ere, gauza berbera gaztelaniaz edo euskaraz eskainiz gero, gaztelaniazkoa hobetsiko luketela aipatzen da. Horren arrazoi nagusia erosoago sentitzen direla da, ohituago daude-eta gaztelaniaz aritzera.

3.2 EDUKI EZBERDINEN KONTSUMO ZEHATZA

FILMAK ETA ZINEMA

MOTAK Akzioa/abentura, fikzioa, beldurra/misterioa, komedia, amodioa, drama.

- HIZKUNTZA**
- Nagusiki, gaztelania.
 - Ingelesa (gutxitan eta aisialdiarekin lotzen dute).
 - Euskara (gutxitan eta derrigortasunarekin lotzen dute, zenbaitetan ikastetxean ikusten dituzte euskarazko filmak). Adb.: *Harry Potter*, *Go!azen...*

TELESAILAK

MOTAK poliziakoak, komedia, fikzioa, amodioa.

- GAILUAK** batzuetan telebista bidez ikusten dituzte telesailak, baina telebistan ordutegi desegokietan ematen dituztenak edota ez daudenak internet bidez ikusten dituzte.
- Telebistan: *Allí abajo*, *Castle*, *Mentes criminales*, *Los misterios de Laura*, *Hawaii 5.0*, *Imborrable*, *La que se avecina/Aquí no hay quien viva*, *Aída*, *Go!azen* (soilik batek aipatzen du).
 - Internet bidez: *The Walking Dead*, *Lo que esconden sus ojos*, *Narcos*, *Teen Wolf...*
- (Ikus daitekeenez, orokorrean Espainiako telesailak edo nazioartekoak ikusten dituzte).

- HIZKUNTZA**
- Telebistan kontsumitzen dutena: gaztelaniaz.
 - Internet bidez kontsumitzen dutena: gaztelaniaz eta ingelesez.

LEHIAKETAK

(Ez dituzte horrenbeste kontsumitzen).

MOTAK musika, inteligentzia, janaria, maitasuna.

GAILUAK telebista bidez ikusten dituzte.

PROGRAMAK *Ahora caigo, MasterChef Junior, Boom, La voz, Burubero* (bakar batek aipatzen du), *First Dates...* (*Mujeres y Hombres y viceversa* eta *Gu ta Gutarrak* ez dituzte ikusten).
(Ikus daitekeenez, orokorrean espainiar lehiaketak ikusten dituzte).

HIZKUNTZA nagusiki gaztelaniaz, euskaraz gutxi.

KIROL EMANALDIAK

KIROL MOTAK futbola, tenisa, moto GP, saskibaloia, eskia, pilota, zaldiak...

GAILUAK telebista zein internet bidez (azken hori, batik bat, partidak ikusteko).

HIZKUNTZAK

- Telebistaz ikusten dutena: gaztelaniaz nagusiki, euskaraz ETB (gutxi).
- Internet bidez: ingelesez gehiago (partidak hizkuntza horretan zuzenean ematen direlako) eta gaztelaniaz.

GAURKOTASUNA

MOTAK Albisteak, kirola, prentsa arrosa.

GAILUAK Telebista zein internet bidez.

HIZKUNTZA Gehienbat gaztelania, jarraian ingelesa, eta azkenik, euskara (dezente gutxiago).

MUSIKA ETA BIDEOKLIPAK

MUSIKA MOTA popa, rapa, hip hopa, elektronikoa, reaggetoia, rocka... euskal kantuek ez, oso gutxitan.

GAILUAK

- Gehienbat internet bidez kontsumitzen dute musika: kontzertuak eta bideo klipak.
- Telebistako zenbait musika saio ere aipatzen dira: *MTV, Tu cara me suena, La voz...* (Bai musika mota eta bai saioak, espainiarrak zein nazioartekoak dira).

BIDEOJOKOAK

MOTAK Askotarikoak, bortitzak ere gogoko ditu hainbatek.

GAILUAK telebista edo telefono mugikorraren bidez, nagusiki *online*.

HIZKUNTZAK nagusiki gaztelania, jarraian ingelesa. Euskaraz ez, euskarazko bideojokorik ez dagoela aipatzen da, baina egonda ere, ziurrenik, ez lituzketela erabiliko aitortzen dute.

YOUTUBER ZEIN BIDEO-TUTORIALAK

HIZKUNTZA gaztelania eta ingelesa. Euskararik ez, materialik ez omen dagoelako euskaraz. Egongo balitz, kontsumitua izateko, eduki "ona" izan beharko luke, ulergarria eta interesgarria.

3.3 EUSKARAZKO TELEBISTA KATEAK (ETB, HAMAICA)

ETB bai kontsumitzen dutela, Hamaika Telebista askok ezagutu ere ez, eta ezagutzen dutenek ez dute kontsumitzen. Teledonosti, gaztelaniazko telebista, aipatzen dute, noizbait ezagunen bat atera denean edo danborrada jarraitzeko ikusi dute, baina gutxi.

ETB euskaraz zein gaztelaniaz kontsumitzen dute, gaztelaniaz agian gehiago. Ondoko programak aipatzen dira:

- Gaztelaniaz: *Vaya semana*, *El conquistador del fin del mundo*, *La noche de*, albisteak, *No es país para sosos*, filmak...
- Euskaraz: *Go! festa*, kirolak, marrazki bizidunak: *Shin-chan*, *Doraemon* (batzuek aipatzen dute grazia egiten diela euskaraz ikusteak), *Burubero*, *Go!azen*, *Eskamak kentzen*...

3.4 IKUS-ENTZUNEZKO EDUKIEN SORKUNTZA ETA HEDAPENA

Taldekideen artean bat youtuberra da, beste batek duela urtebete inguru bideo bakan batzuk egin zituen baina gaur egun ez ditu egiten. Gainontzekoek egin ez, baina jarraitu/kontsumitu bai egiten dituztela. Erabiltzen duten plataforma Youtube da.

Sorkuntza

Bideojokoei lotutako kontuak sortzen dituzte eta hizkuntza nagusia gaztelania da. Gaztelania erabiltza publiko zabal batera irits daitezke. Horrez gain, erosoago ere sentitzen dira, egunerokoan gehiago erabiltzen duten hizkuntza baita.

Iruzkina

Iruzkina egiteko ere gaztelania darabilte gehienbat. Kasu honetan, ikus-entzunezko materialaren hizkuntza berean egiten dituzte iruzkinak. Material gehiago dagoenez gaztelaniaz edo ingelesez, hizkuntza horietan gehiago aritzen dira.

Hedapena

Materialen sorkuntza eta hedapenerako Youtube erabiltzen dute. Facebook, Instagram edota WhatsApp bezalako sare sozialik ez.

3.5 BALIZKO KONTSUMOEN INGURUKO IRITZIA

Euskarazko tutorialen kanala, youtuberrak edota bideojokoak ere euskaraz eskainiko balitzaizkie, haien erantzun nagusia da gaztelaniaz sortzen eta kontsumitzen jarraituko luketela. Batzuek euskarazkoa kontsumitzeko aproba egingo lukete. Halakoetan, edukiak kalitate onekoak eta erakargarriak izatea eskatuko lukete.

Gaztezulo aldizkaria soilik batzuek ezagutzen dute. Berrito gauza bera errepikatzen da: eduki interesgarriak balitu, euskaraz izanik ere, agian kontsumituko lukete.

3.6 DINAMIZATZAILEAREN IRITZIA

Joera nabarmena dute ikasle hauek gaztelaniaz aritzeko, euskara soilik ikastetxean eta "derrigortasun" modura bizi dute. Hortik kanpo, gaztelaniaz aritzen dira (eztabaida amaitu bezain pronto hasi dira gaztelaniaz euren artean). *Game Erauntsia*, *Gaztezulo* eta bestelako materialak euskaraz eskainiz gero, zenbaitzuek kasurik ez liekete egingo, beste hainbatek kontsumitzeko lehen ahalegin bat egingo lukete, baina zaila izango litzateke horretara lotzea. Hots, zaila da kasu honetan euskarazko ikus-entzunezko edukiak egunerokotasunaren kontsumoaren parte bihurtzea.

4. OARSO BEHE-BIDASOA. DBH 4ko ikasleak.

(Printzipioz, D ereduko sei ikasle eta B ereduko bi izango genituela hitzartu genuen. Azkenean, ordea, taldea D ereduko hiru ikasle eta B ereduko bost ikasle osatu dute).

4.1. JASOTAKO IDEIA OROKORRAK

- Donostialdeko ikastetxean ikusitakoaren antzera (eta Debagoiena zein Goierriko kasuetan ez bezala), internet edo *online* saioek telebistak baino pisu handiagoa dute.
- **Internet** edo *online* saioei lotuta, Youtube eta sare sozialak aipatzen dituzte.
- **Youtube:** youtuberrak jarraitzeko edo musika kontsumitzeko erabiltzen dute (bideo klipak batik bat, eta zenbaitetan, kontzertuak).
- **Hizkuntzari** dagokionez, gehienek (zazpi lagunek) bideoak gaztelaniaz ikusten dituztela adierazi dute, bigarren hizkuntza ingelesa da, frantsesa ere aipatzen dute (taldeko bik), eta azkenik, batek arabieraz kontsumitzen ditu bideoak. Euskaraz ez dute kontsumitzen. Euskaraz eskaintzen denaren edukia ez dutela gustuko diote, baten batek euskaraz gutxiago eskaintzen dela ere aipatzen du.
- Erabiltzen dituzten **sare sozialen** artean Instagram, Snapchat, WhatsApp eta Facebook (oso gutxi) aipatzen dituzte. Erabiltzen duten **hizkuntza** nagusia gaztelania da, jarraian ingelesa dator, eta baten batek ere frantsesa darabil. Euskara ez da aipatu ere egiten.
- **Telebista:** telesailak, pelikulak eta dokumentalak (gutxiago) ikusteko kontsumitzen dutela diote. Hizkuntzen artean, berriz ere gaztelania da nagusi, bigarrenik ingelesa. Euskaraz ez dute kontsumitzen (bakar batek soilik), eta arrazoi gisa argudiatzen dute ikastetxean horrenbeste eskatzen zaienez euskara hitz egin dezatela, horrek hizkuntza derrigortasun moduan bizitzera daramatzala. Gorrotoa, amorrua, eragiten omen die. Bestalde, baten batek aipatzen du euskaraz eskaintzen dena umeentzako izaten dela gehienbat.
- Euskaraz material gehiago eskainiko balira, kontsumituko lituzkete ikus-entzunezko edukiak euskaraz? Ez, gehiengoak gaztelaniaz kontsumitzen jarraituko lituzke kalitate bereko materialak euskaraz eskainita ere. Bat edo bi agertzen dira euskaraz kontsumitzeko ahalegina egiteko prest, baina gainontzekoak ez. Agian probatu bai egingo luketela, baina jarraipenik ez lukete izango ziurrenik.

4.2. EDUKI EZBERDINEN KONTSUMO ZEHATZA

FILMAK ETA ZINEMA

GAILUAK nagusiki internet erabiliz ikusten dituzte filmak, nahiz eta telebistan ikusi. Hau da, telebistako kateek eskainitako pelikulak gutxiagotan ikusten dituzte.

MOTAK komedia, fikzioa, akzioa, beldurrezkoak/suspensezkoak, marrazki bizidunak.

- HIZKUNTZA**
- Nagusiki, gaztelania.
 - Ingelesa.
 - Frantsesa (bi ikasle).
 - Euskaraz ez dute kontsumitzen, euskal hizkuntza derrigortasunez bizi dutela argudiatzen baitute; eskolaren aldetik inposizio bezala, hori dela-eta ez dute hizkuntza interesgarri ikusten.

TELESAILAK

GAILUAK telebista bidez ikusten dituzte.

TELESAILAK *CSI, Mentecriminales, Castle, Juego de tronos, Hawaii 5.0, NCIS Los Angeles, Pequeñas mentirosas, The Big Bang Theory, La que se acerca, Los Simpson, The Walking Death.*

(Ikus daitekeenez, telesail gehienak espainiarrak edo nazioartekoak dira).

HIZKUNTZA gehienbat gaztelaniaz kontsumitzen dute, ondoren, ingelesez. Euskaraz ez dituzte edukiak ikusten ez (omen) daudelako, baina eskainiz gero ere lituzketela ikusiko diote (bi taldekideek soil-soilik aipatzen dute ahalegina egiteko prest egongo liratekeela).

LEHIAKETAK

GAILUAK telebista bidez ikusten dituzte.

SAIOAK *Gran Hermano, Got Talent, La voz (kids), Doble tentación, Wipeout, Tu cara me suena, Factor X, Mujeres y Hombres y viceversa, Cámbiame...*

(Ikus daitekeenez, orokorrean nazioarteko lehiaketak edo espainiarrak ikusten dituzte. *Gu ta gutarrak*, esate baterako, ezagutu ere ez dute egiten).

HIZKUNTZA gaztelaniaz kontsumitzen dituzte lehiaketak, euskaraz ez. Hizkuntza horretan eskainiko balira ikusiko lituzketen galdetuta, argi eta garbi ezetz diote. Baten batek aipatzen du agian barre egiteko.

KIROL EMANALDIAK

GAILUAK nagusiki telebistan kontsumitzen dute, zenbaitzuek Internet bidez ere egiten dutela diote, Instagramen hain zuzen, partiden edo kirol emanaldi desberdinen laburpenak ikusteko.

KIROL MOTAK moto GP, futbola, saskibaloia, izotz gaineko patinajea...

HIZKUNTZA zalantzarik gabe, gaztelania.

GAURKOTASUNA

GAILUAK telebista bidez eta gehienbat gaztelaniazko kanaletan.

MOTAK lehenik eta behin aipatzen dutena prentsa arrosari loturikoa da, jarraian albisteak (gainontzeko taldeetan ez du izan horrenbeste pisu prentsa arrosak).

- Prentsa arrosa: *Cazamariposas* eta *Sálvame* saioak nabarmentzen dira.
- Albisteak: TVEko 24 orduko albistegia eta CNN.

HIZKUNTZA gaztelaniaz, euskaraz ez lukete nahi.

MUSIKA ETA BIDEOKLIPAK

GAILUAK Internet bidez gehienbat, Youtube erabiliz bideoklipak ikusteko.

MUSIKA MOTA popa, reaggetoia, elektronikoa, rapa, trapa, punka, reggae-a, flamenkoa, heavya.

(Nahiz eta gustukoena ez izan, gaur egun entzunena reaggetoia dela aipatzen da. Euskal musika ez dute aipatu ere egiten. Euskal musikaz hitz egiten zaienean, hainbat euskal talde izendatzen dituzte: *Esne Beltza, Ken 7, Kortatu, Betizu*).

HIZKUNTZA gehienbat ingelesez kontsumitzen dutela diote, jarraian gaztelaniaz, eta, azkenik, euskaraz. Euskaraz gutxiago kontsumitzearen arrazoia aurrez aipatutakoa litzateke, ez dutela gustukoegi. Dena den, musikaren kasuan malguagoak agertzen dira, gutxieneo kontsumo bat erakusten dute eta gehiago eskainiz gero, eta gustuko musika balitz, kontsumituko luketela diote.

BIDEOJOKOAK

JOKOAK *GTA, Call of Duty, Candy Crush, Clash Royale, ARK, Tiger Ball, Pokemon Go, Rolling Sky, Assassin's Creed, Space Ingeniers, Nebulous* (letra lodiz daudenak biolentoak direla diote).

HIZKUNTZAK nagusiki, ingelesa. Euskaraz ez dituzte kontsumitzen, printzipioz ez daudelako, baina aukera emango balitzaie ere ez lirateke hizkuntza horretan jolasean ariko. Bi ikaslek soil-soilik aipatzen dute, jokoa entretenigarria izanez gero, jolasean ariko liratekeela euskaraz. Gainontzekoek agian probatzeagatik probatu bai, baina ez dute uste jarraipenik izango luketenik.

4.3. EUSKARAZKO TELEBISTA KATEAK (ETB, HAMAICA, GOIENA)

Euskaraz zein telebista ezagutzen dituzten galdetzean, ETB eta Teledonosti (gaztelaniaz da) aipatzen dituzte. Baina ez dituzte kontsumitzen, ETB bakar batek soilik, eta Teledonosti, dakitenean eurak edo euren senide edo ezagunen bat atera daitekeela. Hamaika Telebista ez dute aipatu ere egiten.

4.4. IKUS-ENTZUNEZKO EDUKIEN SORKUNTZA ETA HEDAPENA

Taldekiddeen artean bakarra da youtuberra. Beste guztiek, youtuberrak izan ez arren, badakite bideoak sortzen, nahiz eta gero ez partekatu. Erabiltzen duten plataforma nagusia Youtube litzateke.

SORKUNTZA

- MOTAK**
- *Challenge-ak*
 - *Gameplay*
 - *Random videos* (bideo aleatorioak)

(Sortzaileak mota horietako materialak sortzen baditu ere, taldeak orokorrean aipatzen du txantxak eta blogak ere kontsumitzen dituela)

ASIALDIA EDO IKASKUNTZA nagusiki, entretenimendurako sortzen eta kontsumitzen dutela diote.

HIZKUNTZA sortzaileak gaztelaniaz sortzen du erosotasun eta erraztasunagatik (berez taldean euskararekiko jarrera positiboenetarikoa duen pertsona da, baina gaztelaniaz euskaraz baino erosoago sentitzen dela dio, euskara zailagoa egiten zaio eta horrek sorkuntza zailduko lioke). Kasu honetan, berak hedapenari ez diola so egiten aipatzen du, horri begiratuko balio ingelesez egingo lukeela.

IRUZKINAK

Partekatu eta iruzkindu baino gehiago, "me gusta" botoiari sakatzen diote. Iruzkinak egiten dituztenean, kontuan hartzen dute iruzkintzen ari diren materiala zein hizkuntzan dagoen sortua. Normalean, gaztelaniaz (edo ingelesez) egiten dute.

4.5. BALIZKO KONTSUMOEN INGURUKO IRITZIA

Euskarazko bideo-tutorialen kanala, youtuberrak euskaraz, edota bideojokoak euskaraz ere eskainiko balira, gaztelaniaz sortzen eta kontsumitzen jarraituko luketela diote gehienek. Batzuek bai aproba egingo luketela euskarazkoa kontsumitzeko (bik), eta edukiak kalitate onekoak eta erakargarriak izatea eskatuko lukete.

Gaztezulo aldizkaria ez dute ezagutzen eta ez dute interesik agertzen ezagutzeko ere. Askok ez dutela irakurtzen diote, baten batek irakurtzen duela dio baina gaztelaniaz, ez euskaraz.

4.6. DINAMIZATZAILEAREN IRITZIA

Ikasleek joera nabarmena dute gaztelaniaz aritzeko, euskaraz soilik ikastetxean aritzen dira eta "derrigortasun" modura bizi dute. Talde dinamika burutzerakoan ere kostatzen zaie euskaraz aritzea eta gehienetan gaztelaniaz aritu dira. *Game Erauntsia*, *Gaztezulo* eta bestelako materialak euskaraz eskainiz gero, zenbaitzuek kasurik ez liekete egingo, beste hainbatek kontsumitzeko lehen ahalegin bat egingo lukete, baina zail egingo litzaieke horretara lotzea. Alegia, ikus-entzunezko edukiak euskaraz egunerokotasunez kontsumitzea.

AMAIERAKO IRITZI OROKORRA

Lau eztabaida taldeak eginda, bi joera nabarmentzen dira argi eta garbi. Donostialdeko ikastetxekoek eta Oarso-Behe Bidasoako ikastetxekoek euskararekiko **kontrako iritzi eta erabilera erakusten dute**. Bien artean **jarrera muturrekoena Oarso Behe-Bidasoako ikastetxean** islatzen da. Kontuan izan behar da kide gehienak B eredukoak zirela, euren artean gaztelaniaz aritzeko joera nabarmena zutela eta **euskara derrigortasun gisa bizi zutela, amorruek edo gorroto puntu batekin** batzuetan. Kezkagarria oso. Donostialdeko kasuan, antzeko jarrerak ageri ziren baina amorrura iritsi gabe, eta euskara maila oso ona erakusten zuten.

Beste aldean kokatuko lirateke Debagoieneko ikastetxeko eta Goierriko ikastetxeko taldeak. Hauek euren **egunerokotasunean euskara erabiltzen dute**, gaztelaniaz baino erosoago sentitzen dira euskaraz, eta nahiz eta kontsumoa gehiago egin gaztelaniaz, hori aukera faltari egozten diote. **Euskarazko materiala kontsumitzeko aldeko jarrera argia erakusten dute.**



eman ta zabal zazu



Universidad del País Vasco

Euskal Herriko Unibertsitatea

mac

Ikus-entzunezko Garaikideen Mutazioak
Mutaciones del Audiovisual Contemporáneo



ETORKIZUNA ERAIKIZ
EL **FUTURO** DE GIPUZKOA

